

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Aintzane Ezenarro Egurbide**, Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **INTERPELAZIOA** egiten dio **Patxi Lopez** Lehendakariari, **“Aldaketaren printzipio filosofikoei”** buruz, osoko bilkuran erantzuteko.

### **ZIOA**

Abenduaren 27an argitaratutako elkarrizketa baten adierazi zuen Patxi Lopez lehendakariak, gobernua egin asmo dituen “aldaketen” inguruan *“A mediados de enero prosiblemente presentaremos las medidas en conjunto para visualizar el cambio”*.

Legebiltzarreko 2009ko ekainaren 26ko kontroleko osoko bilkuran, berriz, adierazi zuen *“Jaurlaritzari buruzko Legeak dioenez, nire betebeharra da gobernu-programa definitzea. Ados, definituko dizut: inbestidurako osoko bilkurako hitzaldia, euskal sozialisten hauteskunde-programa, Euskadiko Alderdi Popularrarekin adostutako printzipioen akordioa eta Legebiltzarreko batzordeetan sailburuek egindako agerraldiak”*.

Hainbat bider adierazi izan da gobernutik gobernu programa bere alderdiaren hauteskunde programa zela, baina hala ere konpromisoa hartu zuen “lege-egutegia” osatzekoa eta hala jakinarazi zion Legebiltzarrari azaroaren hasieran. Beraz, hori guztia kontuan izanik, badirudi jabetu dela ez dela nahikoa bere herri ikusoegia zein den argi adierazteko gizarteari.

Horren aurrean, hurrengo interpelazioa egiten dio Patxi Lopez Alvarezi:

### **INTERPELAZIOA**

Argi dezala “aldaketa” ikustarazteko gobernuburu legeztararen erdialderako iragarri dituen “neurriak” zeintzuk diren eta behingoan argi dezan zein den bere herri proiektua.

**Gasteizen, 2009ko abenduaren 29an**

**Aintzane Ezenarro Egurbide**  
**Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak**